

24. IPUINA: ASTOA ETA OTSOA

Baduzu bertze ipuinen bat, Asto zaharrarena eta...

Asto zaharra, mukizu. Hori ere, haurrak ginenean kontatzen ziguten! Zer airearekin kontatzen ziguten! Izaten genuen osaba bat, berak erditsuak pentsatu eta kontatzen zituenak, eta: "Asto zaharra, mukizu!" eta gu hantxe, aditzen. Orduan ez genuen deus ere... bertze deus ere konturik, kontatzen zigutena. Bai. Eta hori, kantatu ez dugu... kantatu? Kantatua?

Nik lagunduko dizut nahi baduzu, oroitzen naizena...

Eta kantatua hor aterako da.

Kantatuko dugu biok, aterako gara biok...

Ba! Nik ere kantatuko dut. Baina, orain...

Kontatu, kontatu ipuina.

Bazen etxe batean, beherean, asto zahar-zahar bat erdi goseak bizi zena. Eta, lokarri handi batekin lotua egoten zen. Eta halako batean gogoratu zitzaion hura moztu eta joan behar zuela larrerat asetzerara, beti goseak baitzegoen.

Eta, bere hortz handiekin moztu zuen hura, bere lokarri hura, eta joan zen. Eta larrean han ari zen jan eta jan eta jan, eta ohartu zen gainera alde hartan ermita koxkor bat bazela, eta gogoratu zitzaion joan behar zuela harat.

Eta harat joan zen eta han harrapatu zuen belar berdea, ona! Eta ase eta han zegoen eguzkitan, "mandaloan" han zegoen eta etorri zitzaion otsoa. Eta otsoak pentsatu zuen: "Ooooo! Demontreko bazkaria dut gaur!". Eta erran zion kantari:

- Agur, agur, astoko!

Eta astoak erantzun zion:

- Ongi etorri, otsoko!

Eta gero otsoak:

- Gaurko nire afari,

hire buru eta beharri.

Astoa jarri zen airean: "Ooooo! Hemen zer pasatu behar ote du?". Eta orduan astoak erran zion:

- Han goitian artalde,

artzainik ez ditek batere.

Baldin joaten bazineke,

zikiro parea zenduke -erran zion.

Eta otsoak pentsatu zuen: "Ooooi! Hau, hau malizia handiarekin ari da!". Eta orduan otsoak erran zion:

- Oinean diat arantze,

ezin frinkatu bezalaxe -ez baitzuen joan nahi harat, otsoak.

Astoa gero eta larriago, gero eta larriago zegoen, ez zekien nola eskapatu eta orduan erran zion:

- Han beheitian ermita,

meza entzun behar diat eta.

Eta orduan, distraitu zegoelarik joan zen eta katakun-katakun sartu, ermitako atea itxi zuen eta barrenean gelditu zen. Eta otsoak, karraskaka, ez zekien zer egin, haren beharria jateko kontua akabatua, eta orduan handik kantatu zion:

- Asto zaharra mukizu,

sobera malizi dakizu,

berriz erreka aldean

harrapatzen bazaitut,

meza entzuteko lanik

izanen ez duzu!

Zer polita den!

Bada, politikak dira kontu horiek, e? Politikak dira.

Norbaitek kontatu zidan, ez dakit Baztan aldean, hasi zen kontaktzen baina ez zekien ongi ipuin hau, ja atzendua. Eta zu zara bakarra, nik ezagutu dudan bakarra, dakiena osorik. ipuin hau inork ez dit inoiz osorik kontatu. Zu zara ezagutu dudan bakarra osorik-osorik dakiena.